

Argudio-testuak Batxilergoko ikasle euskaldunengan, euskaraz eta gazteleraz Euskal Ikasketak

2014/2015

Egilea: Lur Albizu Echechipia

Tutorea: Itziar Idiazabal Gorrochategui

Graduko jakintza-arloa/Saila: Euskararen Didaktika, Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

1. Laburpena	2
2. Sarrera	3
2.1. Zergatik hautatu dugu argudio-testua?	3
2.2. Zer eta non bildu dugu? Corpora eta azterketa	4
2.3. Zergatik aztertu eta alderatu euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak?	4
2.4. Hipotesia eta galderak	5
3. Argudio-testua	5
3.1. Zer da?	5
3.2. Zergatik da garrantzitsua?	6
3.3. Ezaugarri nagusiak	6
3.4. Argudio-testu motak	6
4. Euskaraz eta gazteleraz	6
4.1. Ikasle elebidunak	6
4.2. Eginkizun berdinen aurrean, zein baliabide daude? Curriculuma	6
4.3. Irakaskuntza bateratua?	7
4.4. Gaitasunak eta transferentziak	7
5. Lanerako metodologia: corpora	8
6. Testuen azterketa	9
6.1. Zeri begiratuko diogu? Nola egingen dugu analisia?	9
6.2. Testuen luzera	10
6.2.1. Hitz kopurua	10
6.2.2. Paragrafo kopurua	10
6.3. Testuen egitura	11
6.4. Testuen antolaketa eta konexioa	15
6.4.1. Aurkezleak	15
6.4.2. Diskurtsoari aurrera egitekoak	16
6.4.3. Lotura lineala egitekoak	16
6.4.4. Arrazoiak kontrajartzekoak	17
6.4.5. Ondoriozkoak	18
6.5. Testuen kohesioa	19
6.6. Testuen modalizazioa	22
7. Ondorioak	27
8. Bibliografia	29
9. Eranskinak	31

ARGUDIO-TESTUAK BATXILERGOKO IKASLE EUSKALDUNENGAN, EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

1. LABURPENA

Egunerokoan eta, askotan, konturatu gabe ere erabiltzen dugun testua da argudiozkoa. Bai ahozko bai idatzizko egoeratan aurkitzen ahal dugu hau erabiltzeko beharra.

Hau ikusita, zalantza batzuk agertu zitzaizkigun, hezkuntzari eta, zehatzago esateko, hezkuntza elebidunari lotuak. Izan ere, jakin nahi genuen testu generoen lanketa nolakoa zen ikastetxeetan, baita euskarazko eta gaztelaniazko produkzioa parekoak ote ziren ere, eta hala ez balitz, haien arteko desberdintasunak zeintzuk ziren.

Xehetasunak Gradu Amaierako Lan honetan aurrerago joan ahala ezagutuko baditugu ere, gure zalantzak argitzeko Nafarroako Institutu Publiko batera jo genuen eta hango D ereduko Batxilergoko ikasle batzuei eskatu genien argudio-testuak idazteko, bai euskaraz bai gaztelaniaz. Horrela, gure azterketa aurrera eraman ahal izan dugu.

Lan hau alderdi teoriko eta praktikoa uztartuz egin dugu. Hasteko, sarreraren ondoren, argudio-testuari buruzko informazio teorikoa eman dugu: zer den, ezaugarri nagusiak zeintzuk diren, argudio-testu motak... Jarraitzeko, aintzat hartu ditugu euskara eta gaztelaniaren arteko ukipena eta harremana, eta hauei buruz hausnarketa egin dugu: ikasle elebidunak, curriculumak, irakaskuntzak bateratua izan beharko lukeen eta gaitasunak eta transferentziak. Ondotik, lanerako metodologia eta corpusa zeintzuk izan diren zehaztu dugu.

Hauek eta gero, atal praktikoena aurkituko dugu, testuen azterketarena, alegia. Analisi honek hainbat alderdi biltzen ditu bere baitan: testuen luzera (hitz eta paragrafo kopuruari so eginez); testuen egitura nola osatu duten ikasleek; testuen antolaketa eta konexioa nola egin duten (testu-antolatzaile aurkezleak, diskurtsoari aurrera egitekoak, lotura lineala egitekoak, arrazoiak kontrajartzeak eta ondoriozkoak); testuen kohesioa eta amaitzeko, testuen modalizazioa nola egin duten ikasleek. Oro har, atal praktiko honetan ikasleek zein baliabide dituzten eta hauek nola erabiltzen dituzten ikusi eta azalerratu nahi izan dugu. Horretaz gain, euskara eta gaztelaniaren arteko konparazioa egin dugu, ikasleengan interdependentziaren teoriak eragin praktikorik ote duen jakiteko.

Bukatzeko, aztertutako alderdi teoriko eta praktikoez zein ondorio ematen diguten eta zein konklusio ditugun aipatuko dugu ondorioetan. Gainera, Gradu Amaierako Lan honen oinarri eta ezinbesteko zutabe diren ikasleen testuak aurkituko ditugu bibliografiaren ondotik, eranskin modura lanari gehituta. Ikastetxeko irakasle eta ikasleen laguntzarik gabe ez zatekeen lan hau egitea posible izanen. Mila esker honek aurrera egiteko eman diguzuen laguntzagatik.

Hitz gakoak: testu genero, argudio-testu, euskara, gaztelania, azterketa

2. SARRERA

Argudio-testua gure gizartean oso ohikoa den testu mota dugu. Egoera komunikatibo askotan agertzen zaigu haren erabilera. Ikusiko dugun moduan, egunerokoan eta nahi gabe bada ere, argudio-testua erabiltzen dugu. Ereku pribatu nahiz publikoan bere garrantzia badu testu mota honek. Hezkuntzari dagokionez, curriculum ofizialetan agertzen den testu generoa da argudio-testua (Nafarroako Gobernuak 2008: 68, 102). Hainbat erabilera eremutakoak izan daitezke argudio-testuak, eta ondorioz, azpimota asko bereiz daitezke: literatura, komunikabideak, instituzioekiko harremanak, pertsona arteko harremanak edota ikasketak (Alberdi eta Balentziaga 1999: 127).

Gure lanaren motibazioa eta interesari dagokionez, esan beharra dago interesgarria dela jakitea zer nolako adierazpenak eta ekoizpenak egiten dituzten D ereduko ikasleek idazterakoan. Elebidunak izanda, bi hizkuntzen artean zein desberdintasun dauden aztertu nahi dugu; bestalde, transferentziarik dagoen eta, izatekotan, nolakoak diren eta haien arteko harremana nolakoa den.

Argudio-testuak erabiltzea (bai idatziz bai ahoz) irakaskuntzaren helburu garrantzitsua denez, institutu bateko ikasleen ekoizpenak ezagutu eta aztertu nahi izan ditugu: ikasle talde baten argudio-testuak bildu ditugu bi hizkuntzetan: euskaraz eta gaztelaraz. Uste izan dugu bi hizkuntzetako emaitzak bildu eta alderatzeak interes berezia duela. Sarrera honetan emanen dugu aditzera zergatik aztertu nahi izan ditugun bi hizkuntzetako bertsioak, zein ibilbide egin dugun, erabilitako corpusa eta eskuartean darabilgun hipotesia.

2.1. Zergatik hautatu dugu argudio-testua?

Argudio-testua egunerokoan eta gizartean oso presente dagoen testu mota dugu, Dolz-ek aipatzen duen moduan:

La argumentación forma parte de nuestra vida cotidiana, como lo prueba su presencia en multitud de situaciones de comunicación (Dolz 1993: 68).

Erabilera eremu anitz eta testu desberdinetan aurki dezakegu argumentazioa. Larringan-ek berak ere esaten digu hainbatetan erabiltzen dugula argudio-testua:

Berriz eta birritan agertzen zaigula ez dago esan beharrik: proiektu baten defentsa egiterakoan, eztabaidetan aritzerakoan, aldeko konbentzimendua eragiterakoan, iritzi oker eta ustelak uxatu eta salatzerakoan, etabar. (Larringan 1992b: 99, 100).

Erabiltzen jakin behar dugun testua da argudiozkoa; ohartu gabe ere, txiki-txikitatik erabili behar izaten dugu eta argudioak eman behar izaten ditugu gure iritzia eman eta defendatu ahal izateko. Izan ere, Larringanek aitortzen duen bezala, behin eta berriz agertzen ahal zaizkigu argudiatu ahal izateko testuinguruak.

2.2. Corpusa

Gure analisirako, argudio-testuak Batxilergoko ikasleek nola ekoizten dituzten jakiteko helburuz eta haien adierazpen gaitasuna aztertzeke xedez, zenbait idazlan bildu ditugu Nafarroako Institutu publiko batean. Hango Batxilergoko lehenengo mailako ikasleen idazlanak bildu ditugu, lehenengo euskaraz eta aste bat beranduago, ordea, gaztelaniaz. Aztertuko ditugun testuen egileak ikasle elebidunak dira, hamasei eta hamazazpi urte bitartekoak, eta Iruñerrian bizi dira. Vascuence Legeak 5. artikuluan esaten duenaren arabera, euskararen zatiketari erreparatzen badiogu, eremu mistoko herri batean dago kokatuta ikastetxe publiko hau. Aztertu ditugun ikasleak D ereduan ikasten ari direnak dira.

Guztira, euskaraz 23 eta gaztelaniaz 22 lan bildu ditugu, baina aztertuko dugun corpusa hamar ikaslerena izanen da, xehetasunez aztertuko baditugu, lagina murriztea ezinbestekoa delako. Hortaz, euskarazko (A) hamar testu eta gazteleraazko (B) beste hainbeste izanen ditugu aztergai, beti ere ikasle berek sortutakoak. Hau da, 1A testua eta 1B testua ikasle berberak ekoitziak izanen dira.

2.3. Zergatik aztertu eta alderatu euskarazko eta gaztelaniazko bertsoiak?

Ezin dugu ahaztu bi hizkuntza erabiltzen ditugula Hego Euskal Herrian: euskara eta gaztelera. Eskoletan, eta bereziki institutu honetan, bi hizkuntzak irakasten dira.

Nolanahi ere, Hego Euskal Herriko hizkuntza nagusia, ezbairik gabe, gaztelania da. Ahozkoan gaztelania garaile dela jakinda, interesgarria iruditu zaigu jakitea idazterako orduan nolakoa den ikasleen adierazpena bi hizkuntzetan, desberdintasunik ote dagoen eta hizkuntza batetik besterako transferentziarik dagoen.

2.4. Hipotesia eta galderak:

Ikasleak elebidunak izanda eta D ereduan egonik, euskarazko testu idatzietan trebezia ona erakutsiko dutela uste dugu. Bestalde, gaztelaniaren gailentasunari esker gaztelerako idatziak ere antzeko trebetasuna agertuko dutela pentsatzen dugu; hau da, bi hizkuntzetan egiten den ekoizpena antzekoa izanen dela uste dugu. Gure iritziak, Batxilergoko ikasleak izanik, haien adinari eskatzen zaion heldutasuna azalduko da, eta argudio-testuaren egitura jarraituko dute, bi hizkuntzetan egitura antzekoa delako. Baina hizkuntza bakoitzak gramatika nahiz lexiko mailan bere berezitasunak ditu; beraz, ikusi nahi genuke ea alderdi horietan ere gaitasun parekoa erakusten duten.

3. ARGUDIO-TESTUA

3.1. Zer da?

Ohikoa dugu eguneroko bizitzan argudio-testua. Zeri buruz ari garen jakiteko, hobe dugu definizio zenbait kontuan hartzea, baita bere helburua ere:

Gertakizun, arazo edo fenomeno baten inguruan dagoen tesi (iritzi, uste, postura) bat egiaztatze nahiz errefusatu edo baztertzeko ematen diren aldeko edo kontrako arrazoiez osaturik testua da argudiozkoa. Jasotzailea limurtzea edo iritzi aldaraztea du helburu. (Alberdi eta Balentziaga 1999: 125)

Coinciden en considerar la argumentación como una actividad discursiva que lleva a cabo el locutor con una intención: influir en los destinatarios de su discurso (...) tiene como objetivo convencer a otras personas (...) así pues, la actividad argumentativa está fuertemente ligada al contexto (Camps 1995: 52).

La razón de ser de toda argumentación es la de exponer un punto de vista, destacarlo y justificarlo, tratando de convencer a uno o varios interlocutores o “adversarios” de su valor (Camps eta Dolz 1995: 5).

Beraz, gai bati buruz iritziak, usteak eta horrekiko jarrerak adierazteko testua da argudiozkoa. Igorleak tesi bat planteatu eta berau defendatu egin behar du; honen helburua, gainera, hartzailearengan eragitea eta bere posturara hurbiltzea da, hau da, hartzailea zerbaitez konbentzitzea.

3.2. Zergatik da garrantzitsua?

Arrazoi nagusi honengatik da argudio-testua gure gizartean: asko erabiltzen delako eta, batez ere, komunikazio-egoera askotan erabiltzen dugulako. Testuinguru desberdinetan nola egin jakitea ezinbestekoa da eta kontestu formal zein informaletan aurkitzen ahal dugu, ahozkoan nahiz idatzian.

Multitud de situaciones de comunicación: en las discusiones y deliberaciones privadas entre familiares, amigos, vecinos; en los debates públicos entre políticos, estudiantes, colegas de trabajo; en la prensa (...) en los tribunales... (Dolz 1993: 68).

3.3. Ezaugarri nagusiak

Alberdik (2008) adierazten digunez, argudio-testu baten ezaugarri nagusiak honakoak dira: jasotzailea limurtzea dute helburu, igorlea 1. pertsonan mintzatzen da, hartzailea inplikatu nahi du; azkenik, subjektibotasuna da testu mota honen ezaugarri garrantzitsuenetakoa, baita abstraktua izateko joera ere.

3.4. Argudio-testu motak

Bost erabilera eremutan banatuko ditugu argudio-testuak, eta hauetariko testu mota batzuk emanen ditugu (Alberdi 2008: 73):

3.4.1. Literatura: saioa, epistola, eztabaita

3.4.2. Hedabideak: editoriala, iritzi-artikulua, debatea, eztabaida, publizitatea...

3.4.3. Eremu soziala: eskabidea, eskaintza, txostena, instantzia...

3.4.4. Eremu pribatua: eztabaida, kritikak...

3.4.5. Eskola-eremua: txostena, tesia, ponentzia, azterketa...

4. EUSKARAZ ETA GAZTELERAZ

4.1. Ikasle elebidunak

Lehen ere esan dugu bi hizkuntza erabiltzen dakitela ikasleek, eta, are gehiago, ikastetxean euskara eta gaztelania irakasten direla. D eredukoak izanik, euskaraz gehiago idazten dute, baina kalean gaztelania nagusi denez gero, suposa dezakegu hizkuntza honetan ere pareko trebezia izanen dutela ikasleek.

4.2. Eginkizun berdinen aurrean, zein baliabide daude? Curriculumua

Argudio-testuen irakaspena egiten ote den jakiteko, Nafarroako Gobernuko curriculumera jo dugu. Eta, bertan, euskararen eta gaztelaniaren irakaspenari dagozkion ikasgaien curriculumua aztertu dugu, hau da Euskal Hizkuntza eta Literaturarena (97-114) eta Gaztelania eta Literaturarena (63-80), alegia.

Bertan, curriculumak oso antzekoak direla egiaztatu dugu, testu motak zehazki aipatzen ez baditu ere, ikasleek gaitasun hauek eskuratu behar dituztela esaten du:

Literatura testuen motak (...) eta horien ezaugarri nagusiak ezagutzea, bai eta testu ez-literarioen motak (...) eta horien ezaugarri nagusiak ere (64, 98).

Askotariko mezuak ahoz eta idatziz emateko (...) trebetasuna (64, 98).

Norberaren argudioak, ahoz edo idatziz, modu sinesgarrian azaltzeko trebetasuna, eta beste ikuspuntu batzuk kontuan hartzekoa, ahoz nahiz idatziz (65, 99).

Diskurtso koherenteak eginez, zuzenak, ongi egituratuak, komunikazio egoera eta xede desberdinetarako egokituak¹ (68, 102).

Gehiagorako eman lezake curriculumaren aipamenak, baina orokorrean argi ikus dezakegu askotariko testu moten ekoizpena eskatzen zaiela ikasleei, eta testuen antolaketa kohesionatu, koherente eta testuinguruari egokitu egin behar dutela.

4.3. Irakaskuntza bateratua?

Curriculumak bi hizkuntzetan nolakoa den ikusi eta aztertu ondotik, esan dezakegu bi hizkuntzetan eskatzen zaizkiola ikasleari gaitasun eta trebezia berak testu ekoizpenari dagokionez. Hauek idazterakoan, beraz, ikasleak kontuan izan beharko ditu idatzizko testuek berez dituzten ezaugarriak, eta horren barruan daude argudio-testuak ere.

Beraz, irakaskuntza bateratua posible litzatekeela esaten ahal dugu. Bi hizkuntzen arteko ukipena handia da. Nolanahi ere, ezin dira ahaztu euskararen egoera gutxituak dituen eskakizunak. Interesgarria izaten ahalko litzateke bietan lanketa era bateratuan eta koordinatuan egitea, sekuentzia didaktiko zehatzak prestatzeko, hizkuntza bakoitzak dituen berezitasunak lantzeko mekanismoak desberdinak direla ahaztu gabe.

4.4. Gaitasunak eta transferentziak

Guk honako hipotesia defendatuko dugu: hizkuntza gaitasuna bai euskaraz bai gaztelaniaz antzekoa izanen dela ikasle guztiengan.

Garzia, Idiazabal eta Larringanek (2015) aipatzen duten bezala, hizkuntzen arteko interdependentziaren teorietan oinarritzen dugu hipotesi hau:

¹ Testu hau euskarazko eta gaztelaniazko curriculumetan ageri da; beste gai batzuetan espezifikagoak badira ere, guk aipatutako zatietan testua berdina da.

Se formula de manera implícita la naturaleza bidireccional de la transferencia de destrezas lingüísticas (Garzia, Idiazabal eta Larringan 2015: 1).

Cummins (1981, 2005) menciona tres ámbitos de interdependencia lingüística: la conceptual o semántica, la conciencia fonológica y las competencias metalingüísticas relacionadas con la lengua escrita (in Garzia, Idiazabal eta Larringan 2015: 2).

Cumminsek (2000) argi esaten du hizkuntza batetik besterako transferentzia betetzen dela eta hizkuntza batean dituzten jakintzak bigarrenera pasatuko dituztela. Gainera, irakurmena edo ikasketa estrategiak bezalako gaitasunetan ere, hizkuntza batean dugun jakintza bestera ere transferituko da.

El dominio de la lengua académica se transfiere de una lengua a otra, de manera que los estudiantes que hayan desarrollado la lectoescritura en su L1 tenderán a hacer mayores progresos en el aprendizaje de la lectoescritura en L2 (Cummins 2000: 198).

En otras palabras, la transferencia entre idiomas de los conocimientos conceptuales y las destrezas académicas (como las estrategias de aprendizaje y de lectura) compensa el reducido tiempo de enseñanza en el lenguaje mayoritario (Cummins 2000: 213).

Gure hipotesiarekin jarraituz, gainera, interdependentzia egonen da bi hizkuntzen artean: hizkuntza jakintza batetik bestera pasatuko da eta gaitasun akademikoak ere bai:

Los conocimientos lingüísticos y los conocimientos y destrezas relacionados con la lectoescritura que haya aprendido una persona en su L1 se volcarán sobre el aprendizaje y conocimientos y destrezas académicos de L2 (Cummins 2000: 217).

5. LANERAKO METODOLOGIA: Corpusa

Corpusa eskuratzeko, Nafarroako Bigarren Hezkuntzako Institutu (BHI) bat aukeratu genuen. Ikastetxe hau Iruñerrian kokaturik dago. Bertan, baimenak lortu eta gero, Batxilergoko lehenengo mailako D ereduko ikasgela batera jo genuen. Sarreran aipatu dugun moduan, lehenengo saioan euskarazko testuak bildu genituen eta astebete beranduago gaztelaniazkoak. 23 eta 22 testu bildu genituen, baina haietarik, analisi sakonago bat egiteko helburuz, hamar ikasleren euskarazko eta gaztelaniazko testuak hartu ditugu, azterketa eta konparaketa zehatzagoa egin ahal izateko. Hautaketa hau zoriz egin dugu, azterketa objektiboagoa izaterako bidean. Euskarazkoak A testuak izanen dira eta gaztelaniazkoak, aldiz, B. Ekoizpenerako 50 bat minutu izan zituzten ikasleek saio bakoitzean.

Ikasleei egoera hipotetiko bat planteatu genien kontsigna baten bidez. Izan ere, *argumentatze egoera* bat beharrezkoa da argudiozko testua egin ahal izateko (Dolz 1993: 68), ezinbestekoa da egoera batean kokatzea ikasleak, egoera ongi irudikatu dezaten, norentzat, zertarako eta idatzia non agertuko den garbi izan dezaten.

Ondorioz, Campsek (1995) esaten duen moduan, testuinguruaren garrantziari erreparatuz, zuzendariari gutun bat idazteko eskatu diegu. Euskararen kasuan, Berria egunkarirako litzateke testua eta gaztelaniaren kasuan, herriko aldizkari baterako. Horrela, egilearen helburua zuzenki betetzea lortuko dugu, hartzailea konbentzitzea, alegia, ikasleak testuinguru egokian kokatuz (Camps 1995: 52). Honako hauek izan dira euskarazko eta gaztelaniazko kontsignak:

Ikastetxe batzuetan, azken asteotan hainbat lapurreta egin omen dituzte; gainera, ikastetxeetako leihoak ere apurtu egin omen dituzte, sarrailak behartu eta beste hainbat kalte izan dira. Beraz, honen aurrean Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Saila institutuetan segurtasun kamerak jartzea pentsatzen ari da. Agintarien arabera, honek segurtasuna bermatuko luke eta gainera, egileak zigortzeaz gain, bestelako delituak saihestuko lituzke. Hainbat ikasle neurri honen aurka agertu dira, kontrol soziala areagotzen delakoan, neurria aitzakia gisa hartuz. Norbanakoaren askatasunaren kontrako neurria dela ere esaten dute. Idatz ezazu Berria egunkarirako argudio testu bat, zure ikuspuntua agertuz eta ongi arrazoituz.

En las últimas semanas, ha habido robos en varios institutos y además, han generado daños: roto ventanas, forzado cerraduras... Por tanto, el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra está pensando en colocar cámaras de vigilancia en todos los institutos. Las autoridades creen que esto dará seguridad a los centros, se castigará a los responsables y se evitarán otro tipo de delitos. Algunos alumnos se han mostrado contrarios a esta medida: en su opinión, esta medida va en contra de la libertad individual e incrementa el control social. Escribe un texto argumentativo para la revista “Al revés”, dando tu punto de vista de manera razonada.

6. TESTUEN AZTERKETA

6.1. Zeri begiratuko diogu? Nola egingen dugu analisia?

Dagoeneko aipatu dugu hamar ikasleren lanak aztertuko ditugula bi hizkuntzatan; hortaz, hogeitaz testu aztertuko ditugu guztira. Testuen hainbat alderdi aztertuko ditugu: luzera eta antolaketa (hitz eta paragrafo kopuruari erreparatuz), egitura (argudio-testuen atalak errespetatu eta erabiltzen ote diren), konexio eta kohesio baliabideak (gaiei egiten zaizkien erreferentziak eta ordezkapen anaforikoak) eta

modalizazioa (modalizazio markak eta kontzesioa). Atal bakoitzean euskararen eta gaztelaniaren arteko transferentzia betetzen ote den aztertuko dugu, eta bi hizkuntzen erabilera konparatuko dugu. Testuetan aurkituko ditugun datuen azterketa, besteak beste, erreferentzia hauetatik hartu dugu: Idiazabal 2000, Garzia, Idiazabal eta Larringan 2015, Larringan 1992a.

6.2. Testuen luzera

Hau irizpide kuantitatiboa da, konparazioa hasteko ematen dena. Guk, Idiazabalek bezala, atal honetan bai paragrafo eta bai hitz kopurua hartu dugu aintzat, eta hauen azterketa egingen dugu jarraian.

6.2.1. Hitz kopurua

Hitz kopuruari dagokionez, euskaraz batz bestea ia 179 hitz dituzte testuek eta gaztelaniaz, berriz, 226. Beraz, ia 48 hitz gehiago idatzi dituzte ikasleek erdarazko bertsioetan. Batean izan ezik (5), beste guztietan erdarazko testuak luzeagoak izan dira hitz aldetik. Dena den, ezin dugu aipatu gabe utzi hizkuntzaren izaerak baldintzatu duela alde hau. Izan ere, euskarak duen atzizki eta kasu-marken erabilera dela eta, gauza bera esateko hitz gutxiago ekoizten ditu gaztelaniak baino. Hau dela eta, bien arteko aldea ez dela nabarmena azpimarratu behar dugu.

Taula 1. Euskarazko eta gaztelaniazko testuen hitz kopurua

Subjektuak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	B.B
Euskaraz (A)	204	158	192	144	205	221	218	183	145	118	178,8
Gaztelera (B)	250	178	265	236	190	299	231	208	211	196	226,4

6.2.2. Paragrafo kopurua

Azpiko taulan ikus dezakegun bezala, ikasle guztiek paragrafotan banatu dute testua (gutxienez lautan), eta hasierako tesia, argudioak eta ondorioa bereizirik ageri zaizkigu. Batz bestea, euskaraz 5,2 eta erdaraz 4,7 paragrafo idatzi dituzte, beraz, euskaraz paragrafo gehiago idatzi dituzte oro har. Joera orokorrak honakoak dira: paragrafo kopuru berdina bi hizkuntzetan (1, 2, 4, 9) edo paragrafo bat gehiago euskaraz erdaraz baino (6, 7, 8, 10). Kasu batean (5) bi

paragrafo gehiago idazten ditu euskaraz eta beste batean bat gehiago idazten du ikasleak gaztelaniaz (3).

Taula 2. Euskarazko eta gaztelaniazko testuen paragrafo kopurua

Subjektuak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	B.B
Euskaraz (A)	6	5	4	5	6	5	5	5	5	6	5,2
Gaztelera (B)	6	5	5	5	4	4	4	4	5	5	4,7

Datuek erakusten dute bi hizkuntzetan testuen antolamendua oso modu parekoan egin dutela ikasleek, ez dago nabarmentzeko moduko gorabeherarik.

6.3. Testuen egitura

Testuen egitura tematikoari dagokionez, Alberdik *Oinarrizko gramatika* lanean eta Balentziagarekin batera *Euskal Hizkuntza eta Literatura* liburuan, hiru atal nagusi desberdintzen ditu:

EGITURA (Alberdi 2008: 73, 74):

- Hasierako tesia: eztabaidan den gaia aurkezten da bertan, sarrera modura, eta abiapuntu den arazo, egoera edo kontra egin nahi zaion testuari buruzko aipamena egiten da.
- Argudioen gorputza: hipotesia edo ikuspuntua demostratzen eta justifikatzen duten arrazoi (=argudio), ideia, datu eta frogen azalpena. Askotan, kontra egin behar zaien ideiak ere agerira ekartzen dira.
- Ondorioa: argudioen gorputzeko datu, ñabardura eta arrazoiaren ondorioaren azken azalpena da, non hasierako tesiari (edo kontrako tesiari) aurrez aurre jartzen zaion, dela hura aberastuz, dela kontrako tesia erabat errefusatu.

Aipatu beharra dago ikasle guztiek banatzen dutela testua hiru zati hauetan eta, gainera, paragrafoetan banatzen dituztela atal hauek; izan ere, hasierako tesia eta ondorioa bereizita agertzen zaizkigu beti, hasierako eta bukaerako paragrafoetan banatuta. Argudioen gorputza, aldiz, paragrafo zenbaitetan banaturik ageri zaigu.

Erreferentzia argia egiten diote ikasleek gaiari testuaren hasieran; gaia eta egoera aurkeztu egiten dituzte, testuinguruan kokatzen dute irakurlea:

Azken asteotan egindako lapurretei buruzko gaia pil-pilean aritu da gazteon artean, batez ere (...) segurtasun kamerak jartzearena, alegia (1A); En las últimas semanas, después de los robos (...) el Departamento de Educación (...) ha propuesto (1B).

Azken aste hauetan hainbat lapurketa egin omen dira (...) segurtasun kamerak jartzea pentsatzen ari dira (2A); En estas últimas semanas (...) el Departamento de Educación del Gobierno de Navarra está pensando (2B).

Azken boladan, hainbat lapurreta gertatu dira (...) segurtasun kamerak jartzea proposatu du (3A); Se han producido varios robos en institutos (...) ha propuesto varias medidas (3B).

Azken asteotan gertatutakoaren berri izango duzue seguruenik (4A); En las últimas semanas, en varios institutos (...) ha empezado a buscar medidas (4B).

Azken asteotan (...) egoera hori saihesteko, institutuetan segurtasun kamerak jartzea proposatu du (...) eztabaidak ekarri ditu iritzi desberdinak direla eta (5A); En las últimas semanas, han ocurrido (...) plantea colocar cámaras (5B).

Azken egun hauetan, eztabaida handia dago kalean; izan ere, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak institutuetan segurtasun kamerak jartzea pentsatzen ari da (6A); Estos últimos días, profesores, alumnos y padres y madres no hablan de otra cosa: las cámaras de vigilancia (6B).

Azken asteotan (...) Sailak ikastetxeetan segurtasun kamerak ipintzeko erabakia hartzeaz dago (7A); Durante las últimas semanas (...) está tomando la decisión de colocar... (7B).

Azkenaldian gertatu izan diren lapurreta eta istilu askoren aurrean (8A); Hace ya varias semanas que se han registrado varios daños (...) ha propuesto instalar cámaras (8A).

Azken denboraldian, Nafarroako ikastetxe batzuetan hainbat lapurketa egon dira (...) honi aurre egiteko... (9A); Como ya os habrá llegado la noticia (...) se plantea colocar cámaras (9B).

Azken asteburu honetan enteratu naizenez, (...) Kamerak jartzea erabaki dute (10A); Ultimamente se han dado casos de robos (10B)

Ikusi ahal izan dugun bezala, guztiek azaltzen dute gaia, zer gertatu den ikastetxe zenbaitetan: lapurretak, istiluak... horren ondotik, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailak hartzea pentsatzen ari den neurriez ari dira ikasleak, salbuespen bakarrarekin, 10B testua, alegia. Honetan, lapurretak aipatzetik zuzenean haren iritzia ematera pasatzen da ikaslea.

Argudioen gorputzari dagokionez, paragrafo batean baino gehiagotan banaturik daude kasu guztietan ikasleen ekoizpenak. Hemen argudio batzuen lagina besterik ez dizuegu utziko, erakusgarri moduan:

Eremu akademikora mugatuko bagina, zergatik izan beharko genioke beldurra proposamen horri? (...) Sailak gure segurtasunaren alde egin nahi du honen bidez (...) hezkuntza pertsonalizuagoa emango zitzaion (1A); ¿por qué deberíamos temerle a las cámaras en un

centro educativo? (...) muchas de las veces somos todos los demás los que sufrimos las consecuencias (1B).

Gure adina gora doan enean, bakoitza nahi duena egiteko aukera izan beharko luke (...) ezin gara egun guztian norbaiten kontrolean bizi. Bakoitzak askatasuna izan behar du (2A); va en contra de la libertad individual e incrementa el control social (2B).

Orain kamerak jarri nahi dituzte, denbora osoan begipean izateko. Ez da gehiegizkoa? Ikasleak gara, ez gaizkileak. (...) Gure askatasuna, ikastetxe barnean daukagun gutxia, desagertuko lirake (3A); esta seguridad se puede usar, de forma erronea, para controlar los lugares (...) medidas que se han acabado usando para controlar al alumnado (3B).

Askatasunaren aurkako neurria da (...) irakasleei neurri honek ez lieke onik egingo erabateko kontrola izango baitzuten (4A); privándolos de derecho a la intimidad (...) ya vivimos bastante controlados como para colocar cámaras en los centros (4B).

Intimitatea izateko eskubidea daukagu (...) edo neurria aitzakia gisa hartzen dute kontrola areagotzeko? (5A); Si los institutos tuvieran más seguridad o estuvieran mejor preparados, probablemente no ocurrirían robos (...) ¿es ésta decisión necesaria, o simplemente utilizan una excusa para controlarnos aún más? (5B).

Ekintza horiek egiten dituztenek ez diote egiteari utziko (...) milaka kasu ezagutzen ditugu (...). Lortu nahi duguna ekintza horiek berriro ez gertatzea da, eta ez jendea zigortzea (6A); se incrementa el control social (6B).

Ikastetxeetan segurtasun kamerak ipintzea norbanakoaren askatasunaren kontra joango litzateke (...). Nork ordainduko luke dirutza hori? (7A); el colocamiento de estas cámaras acarrearían un coste bastante elevado (7B).

Teknologia berrien erabilera ona ala txarra egin daiteke, baina berez gailuak ez dira onak edo txarrak (...) segurtasun kamerak erabiltzen zituen eskola bateko ikasle bezala, azaldu nahiko nuke nire bizitza ez dela batere aldatu (8A); aunque se utilicen cámaras no se violan los derechos (8B).

Ez zenuke normaltasunez biziko, baizik eta kartzela batean bezala (9A); ¿Se le puede llamar colegio a algo que te vigilan constantemente? (9B).

Oso erraza suertatuko litzatekeelako nork gauzatu duen lapurreta jakitea (...) Ez dut beste irtenbide hobearik aurkitzen arazoa konpontzeko eta (10A); de esa manera se controlan los robos, destrozos, cerraduras forzadas... (...) es la única manera que veo de que dejen de causar problemas (10B).

Ondorioari dagokionez, azken azalpen edo postura guztiek ematen dute, orain ikus dezakegun moduan:

Sailak gure alde egin duela aipatzekoa da, bai gure segurtasunari begira baita gure etorkizunari begira ere (1A); el Gobierno está actuando de forma adecuada y poniendo de su parte (1B).

Gazteak gara eta akatsak sortzeko momentu asko ditugu. Beraz, kamarak instalatzearen kontra gaude (2A); me gustaría que hicierais una reflexión sobre el tema (2B).

Ikastetxeak kartzelak bihurtzen ari dituzte (...) Hemen gure onerako gaudela. Bakarrik horrela lortuko dugu segurtasun neurrien beharra ez izatea (3A); Creo que el error es tener que poner seguridad para que esto no ocurra (...) solo así, se dejara de ver la seguridad como control (3B).

Neurriaren erabat aurka azaltzen naiz. Kamarak jartzea ikasleen eskubideen aurka dagoelakoan bainago (4A); que la razón de colocar cámaras en los institutos sea evitar los robos me parece una excusa para tener controlados a los alumnos y profesores (4B).

Ikastetxeetan kamarak ez jartzea deritzot, gure askatasuna lapurtzen baitigure eta alferrikako balioko duen tresnak direlako (5A); no me parece necesario ni justo colocar cámaras de vigilancia ya que va en contra de nuestros derechos y es un gasto inútil (5B).

Kamarak jartzea zilegi ez delakoan nago (...) horrek ez luke segurtasuna bermatuko, baizik eta bakoitzaren pribazitatea lapurtu (6A); opino que la colocación de las cámaras de seguridad es una excusa para incrementar el control de los estudiantes, y es totalmente innecesaria (6B).

Ikastetxeetan segurtasun kamarak ipintzea txorakeria bat dela uste dut, norbanakoaren askatasunaren kontrako neurria (...) diru galera (7A); pienso que el colocamiento de cámaras no traería más que problemas (7B).

Ondoriozta dezaket aurrerapauso izugarria litzatekeela grabaketan oinarritutako segurtasuna erabiltzea (8A); pienso que el empleo de camaras de videovigilancia es de vital importancia (8B).

Nahiago nuke kamerarik ez jartzea (...) kamerarik ez jartzea ez du esan nahi errudunak zigorren bat ez izatea (9A); me parece excesiva la medida (...) pero opino que también se debería de guardar respeto hacia los profesores (9B).

Hauek ezinbestekoak eta beharrezkoak dira segurtasun handiko ikastetxe bat izateko (10A); deben de poner cámaras en los centros educativos para que haya un control absoluto (10B).

Dena den, salbuespenak badaude. 2B testuan, esaterako, irakurleak hausnartzera gonbidatzen ditu, azken tesirik eman gabe.

Ondorioak, testuen egituraren azterketa egin eta gero, ondokoak dira: ikasleek ekoizten dituzten testuek bi hizkuntzetan zuzen jarraitzen dute egitura. Ikasia dute aurkezpena egin behar dela, gaiari sarrera bat eman behar zaiola irakurlea

testuinguruan koka dadin, argudioak zuzen ematen dituzte eta, bukatzeko, ondorioak emateko ere baliabideak dituzte ikasleek.

6.4. Testuen antolaketa eta konexioa

Testualizazio-mekanismoak testuaren azpiegiturei dagozkie, eta testuaren koherentziarako tresnak dira (Bronckart 2004: 161). Konexio mekanismo hauek gaia bideratzen laguntzen dute eta testu-antolatzaileen bidez egiten dute hau (Bronckart 2004: 163). Larringanek (1992a: 122) aipatu bezala, ikasleek idatzitako testu-antolatzaileak zenbatu eta zerrendatuko ditugu orain, argudio-testua osatzeko esanguratsuak direnak, egile honek proposatzen duen sailkapenari jarraiki:

6.4.1. Aurkezleak

Azken asteotan (1A, 4A, 5A, 7A), azken aste hauetan (2A), azken boladan (3A), azken egun hauetan (6A), azkenaldian (8A), azken denboraldian (9A), azken asteburu honetan (10A).

En las últimas semanas (1B, 3B, 4B, 5B), en estas últimas semanas (2B), estos últimos días (6B), durante las últimas semanas (7B), hace ya varias semanas (8B), Como ya os habrá llegado la noticia (9B), ultimamente (10B).

Taula 3. Euskarazko eta gaztelaniazko testuetako testu-antolatzaile aurkezleak

	Euskaraz (A testuak)	Gaztelaniaz (B testuak)
1	Azken asteotan	En las últimas semanas
2	Azken aste hauetan	En estas últimas semanas
3	Azken boladan	En las últimas semanas
4	Azken asteotan	En las últimas semanas
5	Azken asteotan	En las últimas semanas
6	Azken egun hauetan	Estos últimos días
7	Azken asteotan	Durante las últimas semanas
8	Azkenaldian	Hace ya varias semanas
9	Azken denboraldian	Como ya os habrá llegado la noticia
10	Azken asteburu honetan	Ultimamente

Oso antzeko joera dutela ikusten dugu datu hauetan. Denek erabiltzen dituzte baliabideak gaia aurkezteko, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz. Oso antzeko formulak erabili dituztela ikus dezakegu.

6.4.2. Diskurtsoari aurrera egitekoak

Ideien arteko lotura egiteko testu-antolatzaileak zerrendatuko ditugu orain; argudioak modu ordenatuan eman eta testuari jarraikortasun bat emateko erabiltzen dira:

Alde batetik (1A, 4A, 6A, 8A, 10A), bestetik (1A, 8A), lehenik eta behin (5A, 7A), azkenik (8A), beste aldetik (10A)

Para empezar (1B, 4B, 6B), por un lado (2B), por otro lado (2B, 6B), en primer lugar (3B), por otra parte (4B, 10B), por una parte (7B, 10B),

Taula 4. Euskarazko eta gaztelaniazko testuetako diskurtsoari aurrera egiteko testu-antolatzaileak

	Euskaraz (A testuak)	Gaztelaniaz (B testuak)
1	Alde batetik, bestetik	Para empezar
2		por un lado, por otro lado
3		en primer lugar
4	Alde batetik	Para empezar, por otra parte
5	lehenik eta behin	
6	Alde batetik	Para empezar, por otro lado
7	lehenik eta behin	
8	Alde batetik, bestetik, azkenik	
9		
10	Alde batetik, beste aldetik	por otra parte

Antzera egiten dute bi hizkuntzetan; dena den, pixka bat gehiago erabiltzen dituzte testu-antolatzaile hauek euskaraz; ez da erregularra, batzuek hizkuntza batean erabiltzen dituzte eta bestean ez. Ez da derrigor transferentzia betetzen.

6.4.3. Lotura lineala egitekoak

Gainera (1A, 3A, 4A, 5A, 8A), egia da ere (1A), gero (3A), bigarrenik (5A, 7A), horrez gain (7A), ez hori bakarrik (10A)

Además (1B, 3B, 7B 10B), seguidamente (1B), es más (7B).

Taula 5. Euskarazko eta gaztelaniazko testuetako lotura lineala egiteko testu-antolatzaileak

	Euskaraz (A testuak)	Gaztelaniaz (B testuak)
1	Gainera, egia da ere	Además, seguidamente
2		
3	Gainera, gero	Además
4	Gainera	
5	Gainera, bigarrenik	
6		
7	Bigarrenik, horrez gain	Además, es más
8	Gainera	
9		
10	ez hori bakarrik	Además

Oro har, lotura lineala egiteko testu-antolatzaile gutxi erabiltzen dituzte. Bestalde, 2, 6 eta 9 ikasleek bat ere ez dute erabiltzen, ez euskaraz ez gaztelaniaz. Horrez gain, oso antolatzaile arruntak erabiltzen dituzte ia denek: *gainera* eta *además*.

6.4.4. Arrazoiak kontrajartzekoak

Baina (1A, 2A, 3A, 4A, 5A, 6A, 8A, 9A, 10A), aitzitik (8A).

Pero (1B, 3B, 7B, 9B, 10B), sin embargo (6B).

Taula 6. Euskarazko eta gaztelaniazko testuetako arrazoiak kontrajartzeko testu-antolatzaileak

	Euskaraz (A testuak)	Gaztelaniaz (B testuak)
1	Baina	Pero
2	Baina	
3	Baina	Pero
4	Baina	
5	Baina	
6	Baina	sin embargo
7		Pero
8	Baina, aitzitik	
9	Baina	Pero
10	Baina	Pero

Euskaraz ia denek erabili dituzte arrazoiak kontrajartzeko testu antolatzaileak, gaztelaniaz ez bezala (lauk ez dituzte erabili). Dena den, lotura lineala egitekoekin aipatu dugun moduan, *baina* eta *pero* erabiltzen ditu gehiengo zabalak, ez besterik.

6.4.5. Ondoriozkoak

Hau guztia esanda (1A), hau guztia dela eta (2A), beraz (2A), hori guztia dela eta (4A), ondorioz (5A, 6A), hori ikusita (6A), hori guztia dela eta (6A, 10A), hori guztia kontuan hartuz (8A), horregatik (9A).

Concluyendo (1B), por lo tanto (2B), con todo esto (2B), en definitiva (3B), por ello (3B), por todo esto (4B, 7B), en conclusión (5B, 6B), así pues (7B), por estas razones (8B), por todas estas razones (9B), finalmente (10B).

Taula 7. Euskarazko eta gaztelaniazko testuetako ondoriozko testu-antolatzaileak

	Euskaraz (A testuak)	Gaztelaniaz (B testuak)
1	Hau guztia esanda	Concluyendo
2	hau guztia dela eta, beraz	por lo tanto, con todo esto
3		en definitiva, por ello
4	hori guztia dela eta	por todo esto
5	Ondorioz	en conclusión
6	Ondorioz, hori ikusita, hori guztia dela eta	en conclusión
7		por todo esto, así pues
8	hori guztia kontuan hartuz	por estas razones
9	Horregatik	por todas estas razones
10	hori guztia dela eta	finalmente

Hemen aberastasun handiagoa ikusi ahal izan dugu, eta gainera, bi hizkuntzetan oso antzeko ekoizpena egin dute.

Oro har, ondorio moduan esan dezakegu ikusten dela hasiera eta bukaera nola egin landu dutela. Tartekoa, ordea, pobreago gelditzen da, baliabide gutxiago dituzte eta ez dituzte nahitaez erabiltzen.

Testuetan ikasleek erabiltzen dituzten konexio baliabideak aztertu eta zerrendatu ondotik, argi ikusten ahal dugu testuari koherentzia ematen dioten baliabide hauek erabiltzen dituztela. Ikus dezakegu antzeko moduan erabiltzen dituztela bai euskaraz bai gaztelaniaz. Zenbait ñabardura dauden arren, esan dezakegu bi hizkuntzen arteko transferentzia alderdi honetan ere betetzen dela; bereziki hasierako eta bukaerako ataletan ikusten da hau hobeki.

6.5. Testuen kohesioa

Testualizazio mekanismo garrantzitsuenetakoa dugu izen-kohesioa, eta beraren barruan anafora da aztertuko dugun baliabidea. Alberdik honakoa esaten digu anaforari buruz:

Testuan lehendik agertua den elementu bati, hurrengo perpausean edo paragrafoan, berriro erreferentzia edo aipamena egitea. (...) hainbat modutara egin daitezke: lehen aipatutako elementuaren ordezkari beste ordezkari bat sartuz (...), elipsia eginez (...), behin eta berriz hitz bera errepikatuz... (Alberdi 2008: 44).

Hala eta guztiz ere, Garziak aipatzen duen bezala, interpretazioak ere leku zabala hartzen du anaforei buruz ari garenean:

Anafora testuan dagoen aurrekari baten berrartzea litzateke (...) ez da ordezkari hutsa izango eta menpekotasun interpretatiboak oso paper garrantzitsua jokatuko du. (...) erlazio anaforikoa ez da “ordezkari hutsa izango eta “menpekotasun interpretatiboak” oso paper garrantzitsua jokatuko du (Garzia 1998: 1, 2).

Alberdik aipatutako baliabideak aipatuko ditugu atal honetan nagusiki: ikasleek erabiltzen dituzten kate tematiko nagusiak, hauek ordezkatzeko zein diren gehien erabiltzen direnak edo gaiari lotutako zein forma idazten duten, ea hitz bat askotan errepikatzen duten ikasleek...

Taula batzuk egin ditugu testuen izen-kohesioa aztertu ahal izateko. Izan ere, bi gai nagusi aipatzen dira testu guztietan: alde batetik, ikastetxeetan gertatu omen diren delituak eta, beraz, arazoa; beste alde batetik, honen aurrean Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Saila hausnartzen ari den hartu beharreko neurriak. Bi gai hauek testuetan kontrajartzen dira eta behin eta berriz egiten zaie erreferentzia. Horrenbestez, behin eta berriz ageri zaizkigun bi gai hauek bi kate tematiko osatzen dituzte eta horiek jarriko ditugu agerian taula hauetan, bai euskarazko eta baita gaztelaniazko ekoizpenetan ere:

Euskaraz:

Taula 8. Euskarazko testuetako kohesiorako ordezkapen anaforikoak

	ARAZOA	NEURRIAK
1A	Lapurretei; bide desegokitik abiatu direnen; arauak errespetatzen ez dituztenak; aipatutako “delituak” egiten dituztenak; bestean ongizatea oztopatzen dutenak.	Proposamena (...) segurtasun kamerak jartzearena; segurtasun kamerak; horrelako arauak; proposamen horri; Gobernuak proposatutakoak; segurtasun kameren; gure segurtasuna
2A	Hainbat lapurketa; egileak; ikasle hoiak egindako txorakeri hoiak; errudun	Institutueta segurtasun kamerak jartzea; egin nahi dutena; kameraz; kamerak instalatzearen
3A	Hainbat lapurreta; leihoak, zerrailak eta beste hainbat kalte; lapurketa hauen	Segurtasun kamerak jartzea proposatu; ikasleak kontrolpean izateko (...) beste argudioren bat; kamerak; segurtasun kamerak; ikastetxeak kartzelak bihurtzen; segurtasun neurrien beharra
4A	Azken asteotan gertatutakoaren; lapurreta; leihoak apurtu; egoera honi; arazo honi	Institutueta segurtasun kamerak jartzeko asmoa; kamerak segurtasuna bermatzeaz; aitzakiatzat; askatasunaren aurkako neurria; neurriak; neurri honek; proposatutako neurria; neurriaren; kamerak jartzea
5A	Delitu larriak; lapurreta, zerrailak behartu; biz-pa hiru lapurreta; lapurtuko	Egoera hori; segurtasun kamerak jartzea proposatu; horrek segurtasuna; segurtasun kamerak jartzea; neurririk; segurtasun kamerak; neurria; aitzakia; segurtasun-maila; kamerak; zigortuko; kameretaz; kamerak
6A	Zenbait ikastetxetan egondako lapurreta; ekintza horiek; milaka kasu; lapurreta eta bestelako gauzak; hori; arazo horiek; ekintza horiek; arazoa	Institutueta segurtasun kamerak jartzea; erabaki hori; segurtasuna bermatzeko erabakirik egokiena; neurri desegokia; kamerak ipintzeak; segurtasuna; kamera simple batzuek; segurtasun kamerak; kameren; neurri hori; hori; kontrol soziala; kamerak ipiniz; egileak zigortu; neurri hori; kamerak jartzea; neurria; horrek; segurtasuna
7A	Egondako lapurreta; ekintza horiek; milaka kasu; lapurreta eta bestelako gauzak; arazo horiek; arazoa	Segurtasun kamerak; erabaki hori; segurtasuna bermatzeko erabakirik egokiena; neurri desegokia; kamerak; segurtasuna; kamera simple batzuek; segurtasun kamerak; kameren; neurri hori; hori; kamerak; neurri hori; kamerak jartzea; neurria; horrek; segurtasuna

8A	Lapurreta eta istilu askoren; istiluak; horrelakoak; arazoari	Kamerak batzuk; ideia honek; kamerarik edota detektorerik; aplikatu beharreko neurria; kamerek; grabaketen; teknologia berrien erabilera; gailuak; bideoak; segurtasun kamerak; gailuen instalaziotik; kameren enpresak; aurrerapauso izugarria; segurtasuna
9A	Hainbat lapurketa; honi; jarrera horiek; horrelakorik	Segurtasun kamerak; horrek; kamerak; kamera; kamerarik; kamerarik
10A	Lapurreta; leihoak apurtu eta zerrailak behartu; lapurreta; horrelako gaiztakeriak; arazo; lapurretaz	Kamerak; hori; erabaki egokia; kamerak; kamerak; hauek

Gaztelaniaz:

Taula 9. Gaztelaniazko testuetako kohesiorako ordezkapen anaforikoak

	ARAZOA	NEURRIAK
1B	Robos; daños; “chiquillerías”; esta situación; “pequeños delincuentes”	Colocar cámaras de vigilancia; tema; vigilancia; cámaras; esto; forma adecuada
2B	Algún que otro problema; robos; daños; grupo minoritario; gamberradas	Colocar cámaras de vigilancia; medidas necesarias; este tipo de medidas; cámaras; nefasta solución; esta solución; cámaras; tema
3B	Varios robos; bándalos; destrozado el moviliario; roto varias ventanas	Varias medidas educativas; la más criticada; colocación de cámaras de seguridad; seguridad; esta seguridad; entre ellas; medidas; cámaras; seguridad; error; control
4B	Varios robos; roturas de ventanas y cerraduras; esto; problema de los robos	Medidas; colocando cámaras de vigilancia; medida adecuada; medida; alguna medida; colocar cámaras en los centros; en contra de la libertad; incrementando (...) el control social; excusa
5B	Varios robos; generado daños; ventanas rotas y cerraduras forzadas; robos y demás	Plantea colocar cámaras de vigilancia; seguridad; este tema; esta decisión; cámaras de vigilancia; ésta decisión; excusa para controlarnos; colocar cámaras de vigilancia; gesto inútil
6B	Robos y daños causados	Las cámaras de vigilancia; colocar cámaras; medida de seguridad; esto; medida excesiva; esta medida; control social; hecho de colocar cámaras de vigilancia; dichas cámaras

7B	Robos; los cuales; varios daños; ventanas rotas, cerraduras forzadas; esto; culpables de estos delitos; delitos	Decisión de colocar cámaras de vigilancia; esta medida de seguridad; las cámaras; las cámaras; esta manera; cámaras de seguridad; única solución; colocamiento de estas cámaras; medidas
8B	Varios daños; algún que otro robo de material y equipamiento; casos de vandalismo; asunto; las situaciones; actos vandálicos	Instalar cámaras de videovigilancia; propuesta; cámaras; empleo de cámaras de videovigilancia; seguridad
9B	La noticia; robos; daños; esa razón; gamberradas; típico travieso; este tipo de problemas; culpables; estas medidas	Colocar cámaras de vigilancia; medidas (...) excesivas; medida de poner cámaras de vigilancia
